

Biktimak: torturatuak

• JOXE AZURMENDI •

(FILOSOFOA)

Badago biktimen arazo larri bat, egon. Asko aipatzen da orain. Lehen presoan sofri-mendua aprobetxatzen eta politizatzaren omen zuelako, ETA salatzen zuten berek, sekulako maniobra politiko-mediaticoa muntatu dute egun batetik bestera biktimekin. Eszenario aldaketaren parte egiten du. Presakapresaka testua eta aktoreak ere aldatu egin dira. Biktimak subjektu publiko politikoak bilakatu dira, ez humanoak bakarrik, ezta bereziki humanoak ere, Euskal Herriaren soluzioari eta negoziarioari buruz tesi politiko propioekin, beren sofriemendua balorazioaz kexa eta galdapenekin Elizarentzat, Jauriartzarentzat, Legebiltzararentzat, doi-doi ez dakigu zerk ematen dien ordezkatza politiko esijente batekin, batez ere ETAre-na biolentzia politikoa ez baldin bada eta ETAKo presoak kriminal arruntak badira, justizia espainolarentzat omen diren bezala. Biktimak berak behintzat politikoak eta politikoki agresiboak dira. Ez dira inola ere krimen arrunten biktima arruntak.

Gai delikatua da. Ez dut zalantzarik egiten, biktimei —gaixoei bezala— inoiz ez diegula aski ardura eskaintzen. Baina biktimentzat beraientzat ere delikatua izan beharko luke. Beraiek beste biktimentzat erakusten duten adina begirune edo mesprezu zor zaie agian beraiei, justizia onean.

Izan ere, biktima batzuek gaur, berak bakarrik izan gura dute *ofizialak*. Klaseak edo kastak onartu behar ditugu nonbait biktimen artean. Biktima batzuek arraza purukoak —*ETAren biktimak*—, eta besteak, biktima pariak.

Errealitateak gutxiago —edo gehiago— berezten du. Puruek besteen hurbiltasunaz ez dute kutsatu gura. Ordea beste biktima guztiengandik aparteko zeru batean eta bakarrik

egon nahi baldin badute ere, biktima bakarrak ez dira. Ez daukate monopolioa. Are, biolentziaren biktima zuzenekoagoak dira torturatuak, adibidez, errespetu guztiarekin, biktimen familiar-tekoak soil direnak baino.

Funtsean, biolentzia bakarra eta problema bakarra ETArena dela, tesia inposatu nahi da berriz ere zehar-meharka. Eta, harrigarri samar neurtzat, Mayor Orejaren operazio hori harro-harro protagonizatzeke guztiz bonrodatetsu ageri dira

“
Biolentziaren biktima zuzenekoagoak dira torturatuak, adibidez, errespetu guztiarekin, biktimen familiar-tekoak soil direnak baino

biktimak. Biktima modu gehiegi dago, ordea, historia honetan, historia guztia berriro faltsifikatu behar ez bada.

Dardarizo bat eragiten zidan goitik behe-ra gorputz osoan irakurri ahala joan den egunean EGUNKARIAN. Azkenean harri bat bezala nengoen. Ez nekien zerbait sentitzen al nuen ere, hitzik gabe, Agurtzane Juanenaren «Torturaren biktima» irakurrita. Agurtzane Juanena nire ikaslea izan zen. Argia, sensibela. Alai. Nik banekien, torturatu izan zela. Baina nik ere ez nion inoiz galdetu: «Zer gertatu zitzaizun komisaldetan? Nolatan bota zenuen zeure burua bigarren pisu batetik?»

Aspaldian ez eta gaur Agurtzanerekin berriro hitzegin dut. Artikulua idaztea zenbat kosta zaion, aitortu du. Zein gaizki pasa duen. Zenbat dudu, idazten hasi baino lehen. Argitaratu ala ez, gero. Ez daki ongi ala gaizki egin duen azkenean. (Milesker, egin duzulako!). Hogeita bost urte pasata, oraindik ez du gai horretaz hitzeginen. Ezin du. Bera ez da berekasa hasteko gauza, inork ez dio inoiz galdetu. Milazio infinito bat jasan dutenen trauma. Horrela, isiltasun laino handi bat gure artean torturaren mundua ezkutatu joan da. Desmemoria zaindua.

Norbaitek tortura kasu berri bat aipatzen badigu, errespetuz entzuten dugu, entzun. Egunkariko izkina batean beste tortura baten salaketa

ikusten dugunean aipatuta, orria pasatzen dugu. Aipatu, aipatzen da, pasatzen da. Deserosoa egiten baita. Hainbeste kasu dira, gainera! «Egingo zuen berak ere zerbait», komentatzen du berriro demokrata zintzoak, plateretik burua jaso gabe, eta seko mutu uzten gaitu denok. Franco joan, Don Juan etorri, demokrata berriaren munduak sano-sano segitzen du beti, pitzadurarik gabe.

Ez da, ez dakigula, egia esan. «Ezin da frogatu», baina jakin badakigu denok oso ongi, torturak badaudena. Alabaina «ezin dugu ezer egin», eta bihar ere bizitzen jarraitu beharra dago. Jakinda bizitzen ikasi dugu. Jakinda ez jakiten.

«Alemaniako jendeak Auschwitz zegoenik ez zekiela, esaten digutenean, murtzetzen gara eta ez dugu sinesten. Baina hemen horixe gertatzen ari da», jarraitu du Agurtzanek. Torturak etengabe daude. Urte asko eta asko da, torturak daudena. Eta kalean denak normala ematen du. Torturarik ez balego bezalaxe bizi gara, bakoitza bere zereginetan. Errealitate birtual batean. Agurtzaneren lankideek ezer ez zekiten orain arte. Eta egunoro dabilta elkarrekin konfiantza osoan. Urteak dira adiskideekin astero afaltzen duela, eta koadrilako gutxi batzuek bakarrik zekiten zerbait. Hurbil-hurbileko ahaideek berek orain jakin dute. Egunkaririk. Etxean, senarrarekin eta umeekin, ez da inoiz aipatzen hori. Torturatuak ez du hitzeginen. Inguruan jendea isildu egiten da.

Agurtzanek, benetan sofritu duten arimen apaltasunarekin, insegurantzarekin, idatzi du bere torturaren oroipena. «Simplekeria itzela da biktimen auzia GAL eta ETArekin ekintzen ondorioetara mugatu nahi izatea. Horriekin batera, Estatuaren instituzioak (legea, polizia, epaileak...) aritu dira inpunitate ia erabatekoaz», idatzi du.

Eta inpunitate erabatekoaz tortura ignoratu eta isilduz jarraitzen dute beti kazetariak, erreinko kazetari handiek batez ere, irratiek, politiko demokratikoeak, epaileak, Parlamentuek, hitz eta pitz egunoro elkarrekin mundua konpontzen gabiltzan jendeak. Denek dituzte hitz handiak edozeri buruz. *Hori*, hitz pila artean isilik pasatzen da zuhur-zuhur. Baina torturak iraun egiten du oraindik. Ez da atzokoa. Ez da frankismoaren kontua.

«Bi mila torturatu omen, azken hogeitorturatu».

Bi milioi eta erdi euskalduntatik, bi mila torturatu. (Ez bi mila, bost mila izan daitezke!!!). Hiru mila inguru, ihes eginak; bi milaren bat, oraintxe exilioan. Hogeit mila gora detentatuak azken urteotan. Hiru mila kartzelatuak. Seirehun eta hamabost presoak oraintxe...

Zifra ikaragarriak dira. «Argentina eta Txile esaten dugu, gero. Eta Madril manifestaldiak egiten dira Pinocheten aurka. Baina Argentina txiki bat dago hemen, eta antza inork ez daki eze. Ez du ezer jakin nahi. Onartu dagoela, ematen du, gauzek halaxe izan behar dutela Euskal Herrian».

Eta ez ditugu kontatu ETAK hildakoak, bahituak. Ez, frankismoan detentatuak, torturatuak. Ez, gerra zibilean afuslatuak, bost mila eta gehiago. Ehun eta berrogeita hamar milatik gora erbesteratuak, etab.

Zifra hauetara iristen garenean, agerian dago, hemen dagoena, biktima modu eta kopuru gehiegi dela. Gizarte osoa da hemen zerbaiten biktima. Esan dezagun, *historiaren biktima*. 1833az gero, gerra zibilak, deportazioak, torturak, kartzelak, inoiz ez da amaitzen. Denbora asko da, biktima asko da. Historia bera dago hemen honez gero, aspaldi, soluzio baten zain. Soluzio bat noizpait ere guzti zontzako. Bizi egin nahi duen herri batentzako.

...hemeroteca

LA VANGUARDIA

Euskadi ez da Ulster

[EDITORIALA]


Lizarrako Akordioa sinatu dutenek Euskadiko bake prozesua nazioartekotzeko du-

ten obsesioa neurri erriidukioetara ari da iristen. Eusko Legebiltzarreko proposamenak —begiraleak eskatzen dituena— NBEko funtzionarioengan eragin duen harri durak oraindik bere horretan iraungo du (...)

(...) Sakon sakonean, lider nazionalista zenbaitek nahiko luketena

zera da, Nevada edo Idahon euskal ondorengo ugari egotea —New Yorken dauden irlandar ondorengoak beste—.

(...) Ulster-ekin alde-ratzeko obsesioa hizkuntzan ere antzematen zaie. Otegiak, alderdi konstituziozaleei *unionista* deitzen die-nean, kasu.



KAHIL / ASHARQ AL-AWSAT